

TREBAKUNTZA 2020-11: EZIK / EZ EZIK / IZAN EZIK

Batzuetan, nahasian erabiltzen ditugu goiko hiru forma horiek. Eta berez, oso esanahi desberdina daukate.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat ez ezik.*
2. **Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa ezik.*
3. **Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia ezik.*
4. **Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea ez ezik beste guztia abendurako gertu egon behar baita.*

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

IZAN EZIK forma salbuespenak adierazteko erabiltzen dugu:

- *Ikasle guztiak ikastaroan daude, Tere izan ezik.*

EZ EZIK forma, aldiz, “horrez gainera” esateko erabiltzen dugu, eta derrigorrez **ERE** erabiltzera behartzen gaitu:

- *Irakurri ez ezik idatzi ere asko egiten du gazte horrek.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Eta, **EZIK** “ezean” formaren sinonimotzat har dezakegu, hau da, ezezko baldintza egiteko erabiltzen dugu:

- *Garaiz ibili ezik/ezean, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko.*
(Garaiz ibiltzen ez bagara, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko).

Beraz, esaldi zuzenak hauek dira:

1. Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat **izan ezik**.
2. Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa **izan ezik**.
3. Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia **izan ezik**.
4. Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, kale guztiak abendurako gertu egon behar baitira, Artola kalea **izan ezik**.
Hau da, Artola kalea ez beste guztia abendurako gertu egon behar da.

Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea **ez ezik** beste guztia **ere** abendurako gertu egon behar baita.
Hau da, dena, dena, Artola kalea barne, abendurako gertu egon behar da.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699